PERNARDOREN ZORRAK

Pernardok berealdiko zorrak omen zeuzkan, eta ordaintzeko dirurik ez. Bere hartzaileak aspertu omen ziren itxoiten, eta horrela bi gizon etorri ziren Pernandoren etxera: “Eupp” hots eginez.

Pernando atera zitzaien esanez:

-Zer zabiltzate, gizonak?

-Hara, bada –erantzun zioten besteek–, zure etxe gainean diru pixka bat badugula eta... huraxe jasotzera etorri gara.

-Nire etxe gainean dirua dagoela? –esan zien Pernandok–. Hori jakin banu, ez nintzen nabilen bezala ibiliko! Hartu, jaunak, eskailerak eta igo teilatura, han dagoen diru guztia zuentzat.

-Ez genuen hori esan nahi –esan zioten besteek–. Zera..., zuk guri dirua zor diguzula eta hura jasotzera etorri gara.

-Hori beste gauza bat da –erantzun zien Pernandok–. Banengoen bada ni, gure etxe gainean dirurik ote zegoen nik jakin gabe. Baina orain ez daukat nik dirurik eta beste egunen batean etorri beharko zarete.

Bi gizonak beren etxera joan ziren.

BARATZAKO OGIAK

Hurrengo goiz batean, Pernando ukuiluko lanak egiten ari zela, etorri ziren berriz bi gizonak. Pernandok ikusi zuen nola zetozen eta andreari esan zion:

-Hemen dira berriz ere lehengoko bi gizon haiek, eta gaur ere dirurik gabe gaude gu. Zer edo zer asmatu beharko dugu. Ogirik ba ala daukazu etxean?

-Bat edo bi bai –erantzun zion andreak.

Pernandok hartu zituen bi ogi, eta barazeko bazter batean sartu zituen lurpean.

Bi gizonak iritsi zirenean aurrekoan bezala hots eginez:

-Eupp...! Gaur ere hemen gara, dirurik ote daukazun edo...

-Sartu zaitezte behintzat sukalderaino –erantzun zien Pernandok–, ogi eta ardo pixka bat hartzeko, eta han hitz egingo dugu.

Haiek sukaldera eraman orduko, Pernando bera atera zen, eta aitzur bat bizkarrean zuela baratzera abiatu zen.

-Nora ote doa gizon hori? –esan zioten beste biek elkarri, eta bere ondoren abaitu ziren. Pernando baratzera iritsi zenean, hartu eskuetan aitzurra eta

aitzurtzen hasi zen. Berehala atera zuen ogi bat eta gero beste bat. Orduan, han zeuden beste bi horiek entzuteko eran hots handian esan zuen:

-Gaurko nahikoa izango dira, gehiago behar izanez gero, etorriko naiz.

Bi ogiak hartu eta etxera abiatu zen. Beste biak ikusi zituenean harrituta bezala esan zien:

-Hemen al zineten, bada, zuek? Goazen etxeraino ogia eta ardoa hartzera.

-Ikusi zaitugu ogiak lurretik ateratzen, Pernando –erantzun zioten besteek–. Ez daukagu guk ogi eta ardo beharrik, baina aitzur hori eman behar diguzu. Gu ere inoiz ogirik gabe gelditu izan gara, errotariak ihes egin digula edo...

-Eta ni nola bizi zuei aitzur hau emanda? –esan zien Pernandok–. Badaukat nik honen beharra, egunero ogia jango badut.

-Begira, Pernando –esan zioten besteek–, zor guztiak barkatu dizkizugu aitzur hori ematen badiguzu.

-Zorigaiztoko zorrak! –erantzun zien Pernandok–. Baina hala nahi baduzue, zuentzat aitzurra, eta gu ere, ogi zuria ez bada artoa edo taloa janez biziko gara.

Bi gizonak pozik joan ziren beren etxeetara, aitzurra bizkarrean zutela.

Etxera orduko esan zien beren emazteari:

-Gaur ogirik ez hartu, e! Hemendik aurrera ez dugu ogi faltarik izango.

Bazkaltzeko ordua iritsi zenean, gizon haietako bat joan zen baratzera eta aitzurrean hasi zen jo eta ke, baina han ez zen ogirik ateratzen. Horrela ari zela etorri zitzaion laguna esanez:

-Utzidak niri orain aitzur hori, hik honezkero nahikoa duk eta... Nik ere behar diat bazkaltzeko ogia.

-Aitzur honek atera zain baldin bahago, egon beharko duk pixka batean –erantzun zion aitzurrean ari zenak, kopetako izerdia igurtziaz– sartu ziguk ederra Pernandok!

Orduan konturatu ziren Pernandok ogiak lehendik sartuak edukiko zituela.

BI ERBIAK

Handik denbora pixka batera berriz ere bi gizon haiek Pernandoren etxera joatea erabaki zuten. Pernando zain zegoen eta askotan begiratzen zuen noiz azalduko ote ziren.

Urrutitik bazetozela ikustean, andreari esan zion:

-Aizu, bart lazoan harrapatuta badauzkat nik bi erbi. Bat utziko dizut hemen saski honen azpian eta bestearekin joango naiz ni mendi aldera. Gizon horiek iristen direnean, atera erbia saskipetik eta bidali bidetik aurrera, niri deitzeko esanez...

Pernandok hartu zuen beste erbia galtzarbean, eta han etxe aurreko sasi baten atzean ezkutatu zen.

Bi gizonak iritsi zirenean beti bezala: Eupp...” hots eginez:

-Zer nahi duzue? –atera zen berehala Pernandoren emaztea.

-Gizona etxean al dago? –galdetu zioten besteek.

-Ez dago, baina berehalaxe abisoa bidaliko diot, nahi baduzue.

-Nahi genuke berarekin egon –erantzun zioten bi gizonek.

-Bai, bai, ez daukat mandatari txarra –esanez, Pernandoren emazteak hartu zuen saskipean zeukan erbia, eta atarian jarri zuen esanez:

-Joan hadi mendira, eta esaiok nagusiari lehengo bi gizon haiek hemen daudela eta lehenbailehen etortzeko.

Erbiak ez zuen bi aldiz esan beharrik izan bidean aurrera joateko. Bi gizonak harrituta zeuden. Horrelakorik oraindio: “Erbi bat mandatari”. Eta zer gertatzen ote zen zain gelditu ziren.

Bitartean Pernandok dena ikusi zuen sasi artetik, eta iruditu zitzaionean denboralditxo bat pasa zela, etxera abiatu zen, besoan zekarren erbiak lagundurik.

Bi gizonek ezin zuten sinistu begiz ikusten zutena.

-Baina, Pernando, erbi honek esan al dizu gu hemen gaudela eta etortzeko?

-Zer uste duzue, ba? –erantzun zien Pernandok–. Bestela, nola asmatu zuek hemen izango zinetela? Egur pixka bat egiten ari nintzen erbia etorri zitzaidanean.

-Erbi hori hemen behar dugu, Pernando –esan zioten bi gizonek–. Gu ere inoiz ehizera joandakoan eta zer ordu den jakin gabe ibili ohi gara.

Tekela puska baten ondoren Pernandok esan zien:

-Eraman ezazue eta hemendik aurrera goixeago ala beranduxeago bilduko ahal gara etxera...

Bi gizonak pozik itzuli ziren beren erbiarekin.

Hurrengo egun batean, bi gizonek ehizara joan behar zutela oso goiz, eguerdi aldera etxera etortzeko asmoan, eta baten emazteari horrela esan zioten:

Bihar gu ehizara goaz. Eguerdi inguruan, bazkaria jartzen duzunean edo, bidali guregana aurrekoan ekarri genuen erbi hori.

Bi gizonak joan ziren ehizara urrutiko mendi batera. Eguerdi aldera, Etxekoandreak hartu zuen erbia eta bidean aurrera bidali zuen esanez:

-Joan hadi eta esan nagusiei bazkaria pronto dagoela.

Bi aldiz esan gabe joan zen erbia, bere burua askatua ikusi zuenean.

Bitartean ehiztariak zain jarrita zeuden erbia noiz ikusiko, eta luze iritzita. Itxoiten aspertu zirenean, etxera etorri ziren emazteari ederrak esateko asmoan.

Emaztea ere zain zegoen, eta horrela bi gizonak erbirik gabe zetozela ikustean, galdetu zien:

-Erbia non duzue? Ez al zaizue garaiz iritsi?

-Bidali al duzu, bada? –erantzun zioten besteek.

-Bai –esan zien emazteak–, zuek etorri zareten bide horretatik aurrera joan da zuzen-zuzen.

Bi gizonak elkarri begira gelditu ziren.

-Orain ere sartu ziguk ederra Pernandok –esan zioten elkarri–. Bi erbi edukiko zituen hark... Ez ziguk horratik berriz sartuko!

EMAZTEEN HERIOTZA

Handik egun batzuetara berriz ere bi gizonak Pernandoren etxea doaz elkarri esanaz:

-Besterik ez bada, ukuiluko behiak kenduko zizkioagu oraingoan.

Pernandok ikusi zuen nola zetozen eta bere emazteari hots egin zion:

-Aizu, zatoz pixka batean. Betiko bi gizon haiek hemen datoz orain ere. Bete ezazu zato txikia ardoz, eta jarri ezazu kolkoan. Hona iristen direnean, ni zurekin haserre banengo bezala hasiko naiz eta labana sartuko dizut kolkoan. Zu lurrera erorikoz zara, hilda bazeunde bezala. Gero nik txilibitua joko dizut belarri ondoan eta jaiki egingo zara.

Bi gizonak iritsi ziren beti bezala; Eupp... hots eginez.

Pernando berehala atera zen:

-Zer dugu, gizonak –esanez.

-Zer dugun esaten diguzu? –erantzun zioten besteek haserre bizian–. Nahiko barre egin duzu kontura, eta oraingoan besterik ez bada ukuiluko behiak edo zer edo zer eraman gabe ez gara joango.

-Ez dago gaizki –erantzun zien Pernandok patxaran– Non duzue erbia? Nirekin hain zintzo ibili ohi zen.

-Gurekin ez da, bada, hain zintzo ibili –esan zioten bi gizonek–. Gu gelditu gara orain ez erbi eta ez diru.

Orduan Pernandok emazteari deitu eta oso haserre esan zion:

-Ikusten duzu orain? Gizon hauek ukuiluko behiak eta ez dakit zer kenduko dizkigutela diote. Izan ere, zu zarela eta ez zarela, zorrak egin genituen guk! Orain ikusten duzu? Bertan hiltzea merezi zenuke.

Eta, besterik gabe, hartu lababa eta emaztearen bularrean sartu zuen. Emazte gaixoa lurrera erori zen luze-luze “odola” zeriola...

Bi gizonek hori ikustean Pernandori heldu zioten esanez:

-Baina, gizona, zer egin duzu? Zorrak dauzkazula eta andrea hil duzu orain? Guk, behintzat...

-Ez ikaratu, gizonak –erantzun zien Pernandok–, horrelakoak egiten ohituta nago ni lehenago eta.

Gero atera poltxikoan zeukan txilibitua eta emaztearen belarri ondoan hasi zen: pitt, pitt...

Andrea berehala jaiki zen, ezer gertatu ez balitz bezala.

Bi gizonak harrituta eta ikaratu gelditu ziren.

-Pernando –esan zioten azkenean–, orain artekoak zerbait ziren, baina hau horratik... Txilibitu hori eman beharko diguzu, gu ere inoiz emaztearekin haserretu izan gara.

-Txilibitu hau nik eman...! Ezta mundu guztiko diruarengatik ere! –erantzun zien Pernandok–. Txilibitu hau izan ez banu, honezkero mila aldiz hila nuen nik nire andrea.

Baina bi gizonek hainbeste erregutu egin zioten, emateko eta emateko, azkenean Pernandok andreari esan zion:

-Txilibitu hau ematera noa gizon hauei. Hemendik aurrera bakean bizitzea besterik ez dugu...

Bi gizonak pozik joan ziren etxera txilibitua berekin zutela.

Pernando eta bere emaztea etxean gelditu ziren, andrea kezka pixka batekin:

-Ez ahal dituzte behintzat emazteak hilko –esan zion Pernandori.

-Esnatuko ahal dira lehenago –erantzun zion honek.

Laster izan zuten bi gizonek emazteekin haserretzeko motiboa. Batek labana hartu eta hil zuen bere andrea, eta gero hildakoaren ondoan txilibitua jo eta jo hasi zen: pitt, pitt...

Horrela ari zela etorri zitzaion bestea hoska:

-Utzidak txilibitua, andrea hil diat eta...

-Hik ere hil al duk? –erantzun zion besteak–. Egon hadi orduan pixka batean, txilibitu honekin piztu nahi baduk!

Biek saio handiak egin zituzten emazteen belarri ondoan txilibitua jotzen, baina dena alferrik. Emazteak ondo hilda gelditu ziren, eta bi gizonak alargun.

PERNANDOREN ARTALDEA

Handik denbora puska batera joan ziren berriz ere bi gizonak Pernandoren etxera. Idiak eta gurdia eraman zituzten, eta gurdian kutxa bat, Pernando han sartu eta ibaira botatzeko asmoan.

Pernandoren etxera iritsi zirenean, Pernando etxeko lanak egiten zebilen, eta hitz egiteko betarik eman gabe, bien artean heldu eta gurdian zeramaten kutxan sartu zuten. Berehala abaiatu ziren beheko ibaira, han zegoen osin handi batera bota behar zuten eta.

Bidean zihoazela, bi gizonak taberna batean sartu ziren, baso-erdi bana hartu behar zutela eta... Bitartean han gelditu zen Pernando kutxa barruan, ia-ia itoan.

Bi gizonak tabernan zeuden bitartean, artzain bat gerturatu zen hara bere artaldearekin. Pernandok entzun zuen ardien hotsa eta han norbait bazela, eta dinbi-danba... kutxa hankekin jotzen hasi zen. Artzainak entzun zituen hots haiek, eta harrituta gelditu zen zer izan ote zitekeen. Berehala zabaldu zuen kutxa, eta han barruan Pernando ikustean:

-Zer egiten duzu hemen, gizona? –galdetu zion.

-Hemen zer egiten dudan? –erantzun zion Pernandok–. Esango dizut: gizon batzuek ni erregearen alabarekin ezkontzea nahi dute, eta nik nahi ez dudalako ibaira botako omen naute... eta hementxe noa.

–Ez haiz tonto txarra –erantzun zion artzainak–. Ni ezkonduko nintzateke erregearen alabarekin...

-Jarri zaitez nire tokian –esan zion Pernandok–. Nik zainduko ditut ardiak.

Artzain gizajoak atera zuen Pernando kutxatik, eta bera jarri zen haren tokian. Pernandok gaineko atea itxi zion kutxari, eta lehenbailehen joan zen toki hartatik artaldea hartuta.

Bi gizonak tabernatik atera zirenean bideari jarraitzeko asmoan, artzaina hasi zen hoska kutxa barrutik:

-Ezkonduko nauk, ezkonduko nauk...

-Arraio hori, ezkonduko haizela? –erantzun zioten besteek–. Gu ezkondu beharrean jarri gaituk behintzat orain.

Osin handi batera iritsi zirenean, hartu kutxa eta: plasta... bota zuten uretara. Laster ezkutatu zen kutxa ur pean.

Hori egin zutenean, bi gizonek hartu zituzten ideiak eta gurdia, eta etxe aldera abiatu ziren.

-Arraio honek ez ziguk behintzat gehiago lanik emango –esan zioten elkarri. Eta gero bidean aurrera zihoazen isil-isilik.

Bitartean, Pernando han zegoen zain-zain bere artaldean ondoan zeukala. Bi gizonak ondora iristean hots egin zien:

-Zer zabiltzate, gizonak, garai honetan hemen? Feriatik al zatozte edo?

Beste biak ikusten zutena ezin sinisturik gelditu ziren.

-Baina, zu al zara, Pernando? Guk...

Pernandok ez zien utzi ezer esaten, berak esan zien:

-Bai, zuek gizajoak, ustez kalte handi bat egin nahi zenidaten, baina nire bizitza guztirako eginda utzi nauzue.

-Nola, ordea? –erantzun zioten besteek.

-Nola, esaten duzue? Ikusten duzue artalde eder hau? Ba, zuek osinera bota nauzuen toki hartantxe hartu ditut ardi guztiak, eta... han asko gelditu dira oraindik.

-Guri ere artalde on bat ez litzaiguke gaizki etorriko –esan zioten bi gizonek–. Erakutsiko al diguzu, Pernando, nola hartzen diren?

-Nahi duzuenean –erantzun zien Pernandok–. Eraman nazazue ni bota nauzuen osin haren ondora, eta hantxe esango dizuet.

Hala joan ziren berriz ere artzaina bota zuten osin hartara.

-Hementxe bota zaitugu –esan zioten bi gizonek Pernandori.

-Hortxe hartu ditut, bada, nik ardi guztiak –esan zien Pernandok–. Hor gelditzen diren beste guztiak, zuentzat.

Gizon haietako bat berehala sartu zen ibaira eta laster asko ur pean ezkutatu zen. Berehala hasi zen palastaka eskuak ibiltzen eta arnasa ezin harturik, pill-pill...hasi zen uretan ateratzen haren arnasa haizea.

-Zer egiten du horrek? –galdetu zion beste gizonak Perandori.

-Onenak aukeratzen ari da –erantzun zion Pernandok.

-Ez ditu, bada, denak horrek hartu behar –esan eta bera ere osinean sartu zen.

Bi gizajoek ez zekiten igeri egiten, eta biak ito ziren.

Pernandok hartu zituen ideiak era gurdia, eta geroago artaldea, eta bere etxera joan zen.

Gehiago ez zioten lanik eman bi gizon haiek.

Nere aita zanari entzuna

Jose Arratibel, "Kontu zaarrak"